

175. FITXA Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak finantzatzeko laguntzak

Nori zuzendua: EAEko foru aldundiak, mankomunitateak, kuadrillak eta udalerrriak edo udalerrri-elkartek, bai eta haien mendeko edo haiei lotutako organismoak eta gainerako entitateak ere, autonomia- eta toki-sektore publiko instituzionala osatzen dutenak; EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta haiekin lotutako entitateak; Irabazi-asmorik gabeko landa-garapenerako elkarteak.

Sarbide-esteka: [Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak finantzatzeko laguntzak, 2025-2026 - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [EBAZPENA, 2025eko irailaren 23koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integraletarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia argitaratzeko dena](#)

Eremuak: Enplegua

Zenbatekoa: 7.505.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/31

Laburpena

Deialdi honen xedea dirulaguntzak ematea da, **«Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak»** finantzatzeko. Dirulaguntzen bidez, arreta integral eta pertsonalizatua eman nahi zaie gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenei edo kalteberatasun sozialeko egoeran daudenei.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Deialdi honen babesean diruz lagundutako enplegu-proiektu integraletan, kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak hartu ahalko dute parte, langabezian badaude, Lanbiden enplegu-eskatzailerik gisa inskribatuta badaude eta EAEn bizi badira.

Hauek hartuko dira **kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonatzat**:

- 45 urtetik gorako pertsonak.

- DSBEaren edo BGDSaren titularrak edo onuradunak.
- Luzaroko langabeak.
- Kualifikazio baxuko langabeak.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, laguntza espezifikoak jasotzen dituztenak edo lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak –harrera-baliabideetatik etortzeagatik edo bestelako inguruabar batengatik–, egoera berezi hori egiaztagiri bidez egiaztatuta dutenak eta enplegu-eskaeran izaera berezi horren aipamena dutenak.
- % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta dutenak.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenak, Gizarte Zerbitzuek egiaztatuak.
- Alboko esklerosi amiotrofikoa duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalak.
- Kalteberatasun-egoeran dauden eta enplegu-politiketarako lehentasunezko arretako kolektibotzat hartzen diren beste pertsona batzuk, Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legearen 50. artikuluan ematen duen definizioaren arabera.

Enplegu-proiektu integralek jarduketa hauek guztiak konbinatu beharko dituzte:

- Lan aurreko gaitasunei, zeharkako gaitasunei eta gaitasun profesionalei buruzko prestakuntza.
- Parte-hartzaile bakoitzaren lan-kontratazioa.
- Lan-orientazioa eta aholkularitza.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuak **2025eko abenduaren 31** baino lehen hasi beharko dira, eta **2026ko urriaren 1a** baino lehen amaitu.

Laguntzen zenbatekoa

Enplegu-proiektu integraleko prestakuntza-, orientazio- eta kontratazio-prozesu osoa amaitzen duen pertsona bakoitzeko **17.115 euro** jasoko dira.